



IRLAK

Agustin Arrieta Urtizberrea



n a r r a t i b a

ere in

IRLAK
eta beste kontakizun batzuk

Narratiba, 91

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitzezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

1. argitalpena: 2015eko irailean

Azalaren diseinua:

Iturri

Azaleko irudia:

Arnold Böcklin, *Die Toteninsel*

Maketazioa:

Erein

© Agustin Arrieta Urtizberea

© EREIN. Donostia 2015

ISBN: 978-84-9109-042-7

L. G.: SS-1120/2015

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: erein@erein.eus

www.erein.eus

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: itxaropena@itxaropena.net

www.itxaropena.net

Agustin Arrieta Urtizbera

IRLAK
eta beste kontakizun batzuk

Inma eta Igorri

IRLAK

1

Garai batean turistentzako itsasontzia zen. Hiriaren eta bere ingurumarien edertasuna erakusteko erabiltzen zuen udal-
txeak. Kaitik atera, eta irlaz irla joaten zen. Turistek bueltaxka
bat ematen zuten irla bakoitzean, eta hiriaren ikuspegiak go-
zatzen zituzten. Irlarik handiengan ordubeteko paseotxo
zuten, itsasargira iritsi arte, eta handik irla guztiak eta hiria
bera ikusten zituzten. Seguru asko, horixe zen lekurik ego-
kiena ikuspegi orokor zabala izateko, agian horregatik dei-
tzen zioten itsasargiari *Jainkoaren begia*. Itsasontzia gainezka
joaten zen beti, eta halere isiltasuna gailentzen zen, ikusme-
naren lan eskergak elkarrizketei atak ixten baitzizkien. Itsa-
soaren urdinean, itsasontziaren barruko kolore aniztasunak
atentzioa ematen zuen. Bazirudien, jendea baino, kolore guz-
tietako puxiak zihoazela bertan. Irla batera iritsitakoan pu-
xika guztiak aldi berean zulatzen ziren, eta gero, abiatzerakoan,
berriro puzten.

Irla nagusia urruti samar zegoen hiritik, eta itsasoa basati
zebilenean, hiritik ikusita, ia-ia desagertu egiten zen olatu gri-
natsuen mendean. Irlatik, noski, hiria ere urruti samar ikus-
ten zen, baina, halere, haren egitura nagusiari antzematen
zitzaion. Bi zubi erraldoik zedarritzen zuten hiria, zubi go-
rriak eta zubi grisak, hurrenez hurren; bata eskuinean, bestea
ezkerrean. Aurrez aurre etxe dotore zuriak ikusten ziren, hon-
dartza aldera ematen zutenak. Gaez, etxeetako eta kaleetako
argiak eta mendi aldera zegoen lantoki erraldoitiko kea nagusi

ziren. Hiriko jaietan argiek eta keak bat egiten zuten su artifizial ospetsuekin. Polita zen eztanda bakoitzean irlen eta hiriaren aldi bereko eta bat-bateko agerpena. Jendeak, besoak altxatuz eta harridura ozenki adieraziz, harrera egiten zion anai-arreben agerpenari.

Hiriak paristar kutsua zuela esaten zen, Paris txikia; bazuek laudorio gisa esaten zuten, bestetzentzat, berriz, iseka hitzak ziren.

Baina argi gehienak itzali ziren aspaldiko partez, eta koloreak hits bihurtu ziren. Berri txarrak zekartzan kea gailendu zitzaien.

Paris ez zen berriro aipatu ere egin.

2

Itsasontzia irla nagusirantz zihoan, jendez mukuru. *Zaindariak* goitik behera zuriz eta laranjaz jantzirik zihoazen, esku-larru beltzak, eta kanpoko munduarekiko ikus-harremantarako saretxo erdi-garden bat zuten begien altueran. Zuriz zihoazenak medikuak edo haien laguntzaileak ziren. Besteek, laranjaz zihoazenek, armak zeramatzaten, eta puntu estrategikoetan kokatuak ziren itsasontzian. Aginduak garbiak ziren. Istiluak hasten baziren, ohar bat eta bakarra eman ziezaieketen parte hartzaileei. Istiluek jarraituz gero, tiro egin, eta gorpuak zorro beltz isolatzaile berezietan sartu. Hala, lantoki erraldoiko labe garaiaren bazka ugaritu egingo zen.

Medikuak jendartean ibiltzen ziren, aholkuak ematen, gaixoak lasaitu nahian edo. Odol putzu bat agertu ahala, laguntzaileek garbitzen zuten. Jendearen begirada galdu samarra

zen, telebistetan hainbatetan ikusitakoa, lurrikara, tsunami edo uholde gertatu berriaren ondorengo begirada. Jakin bazekiten hirirako itzulera zaila zela, ia ezinezkoa, baina ezagun zen baten bat itzulia zela, ehunekotan proportzioa ikaragarri txikia bazen ere.

Hirian ezarritako legedi berria oso sinplea zen: gaixoak irletara, kutsatzeak saihestarren, eta beste guztiak medikuzterketen zain, arriskutik kanpo ote zeuden behin betiko baieztatzeko. Hala baieztatuz gero, hiri inguruan ezarritako armada-hesia zeharkatzeko aukera izango zuten. Zalantzazko kasuak, ez gutxi, hirian geratzen ziren, norantz joko zuten jakin gabe, irletara edo hiritik kanpora.

Itsasontzian ez zegoen umerik. Hamalau urte inguruan jarria zuten muga. Adin horretara iristen ez zen umeri edo gazteari, gonbito gorrika hasten zenean, ez zioten inongo botikarik ematen. Ikerketek frogatua zuten gaitzak ez zuela itzulbiderik ume edo gazte horien kasuan. Kutsatutako ume edo gaztearen atzetik ibiltzen zen laranjaz jantzitako bat, noiz hilko zain. Azkarra izaten zen. Putzu gorriek argi eta garbi adierazten zuten gaixoaren azkeneko ibilbidea. Hil ahala, zorro beltzera. Azken buruan, itxaropen txikiena zuen taldea botika banaketatik baztertu beharra zegoen. Gainera, medikuak eta zaindariak ondo babestu behar ziren, haiek ziren agintari berriak, haien esku zegoen itxaropena, eta botiken proportzio handia haientzat zen.

Pipiak egurrean nola, halaxe egin zion eraso birus txiki ezegagun batek hiriari. Gainbehera orokor eta ezin azkarragoa ekarri zuen. Lehenik, *ekonomia sistema* lurrundu zen. Janariak eta botikak, besterik ez zen behar. Erorketa, familietara ere iritsia zen. Edonork antzeman ziezaiokeen pandemiaren

larritasunari, *seme*, *alaba*, *aita* eta *ama* hitzek, esanahiari eutsi bazioten ere, indar osoa galdu zutela ohartuta. Batek baino gehiagok berari zuzenduta entzuna zuen *ama* edo *aita* eta, ulertu arren, ez zuen erreakzionatzen, ez zuen erantzuten. Hori gerta zedin denbora luze igaro zen, eta aspaldi zen birusaren lehenengo erasoak agertu zirela. Mediku/zaindari/gaixo bereizketa nagusi izatera igaro zen. Bereizketa horixe zen anto-lamendu-arrasto nagusia.

Hondartza gorpu etzanez gainezka zegoen. Bazirudien eguzkiak kiskali zuela hondartzan zetzan jende guztia, harik eta belztu zuen arte. Gorpu guztiak zorro berezi beltzetan. Labe Garaia zain.

Egun hartan, itsasontziaren karelean, besteen artean, Jon zihoan, urruntzen eta txikitzen ari zen hiriari begira. Tarteka buelta eman, eta oka egiten zuen. Haren bizkarrean geratzen zen putzu gorria, eta berandu gabe zaindariatako bat etortzen zen hura garbitzeko asmoz. Lasaigarriei esker ondo eramaten zen gaitza, nahiz eta egoera aurreratuan izan, gonbito gorrien maiztasunak adierazten zuen moduan. Egoera bitxia zen. Herriotza gertu zegoen, baina buruaren egoera lasaia zen, *lotia* esan zitekeen, nagiak atera gabeko egoera. Grinak itzalita, ezer egiteko indarrik apenas. Pentsamendu motela zen animalia arrazionalaren azken arrastoetako bat. Jon bere buruilan zihoan, droga bat hartu izan balu bezala.

Azkeneko gertakariak zerabilzkion gogoan. Oroipen horien indarra ahultzen ari zen, hiria haren ikusmenetik urruntzen ari zen eran. Familiak eztanda egin zuen. Aita zoratu zen, eta bizitza osoan izandako oreka eta erabakitasuna desegin ziren lehenengo gonbito gorriak bota ahala. Bat-batean apurtu zuen bizitza osoan eskuratutako irudia. Jonek gogoratzen

zuen aitak berak esandakoa: norbera nolakoa den jakiterik ez dago, harik eta heriotza iristen den arte. Horrek oso garbi erakusten zuen *nortasuna* delako hori ez dela gauza bat fin-katurik dagoena edo norberak bere baitako txokoren batean duena. Ez, nortasuna egiten den bide bat da, eta bidea ez dago zehazturik harik eta amaitzen den arte. Aitaren kasuak ideia hori oso garbi egiaztatu zuen. Familia abandonatu zuen, ihes egin zuen, desagertu zen, eta bizitza osoko irudi eredu-garria erre. Amaren kasua oso bestelakoa izan zen. Ama diskretua izan zen beti, ia ikusezina. Baina Jonen arreba gonbitoka hasi ahala, ama ez zen haren ondotik mugitu. Zaindareiek alaba kaira eraman zutenean, amak bide berari jarraitu zion. Ama ez zen kaitik mugitu, eta itsasontziari begira geratu zen, alabaren bizibidearen azkeneko lorratzari beha. Ama ez zuen gaitzak akabatu. Amak ez zuen gonbito gorririk jaurti, baina kaian hil zen.

Hala, Jon bakarrik geratu zen, hirian barrena nora ezean, itsasontzira igo zen arte. Karelean, itsasontziaren lorratzari begiratzen zion, hiriaren eta bere arteko azkeneko hari hauskorrari.

Jiratu, eta goraka begiratu zuen. Berari kirika zegoen zaindari baten irudiarekin topo egin zuen. Zaindaria militar erara urrundu zen Jonen behaketik, errime, egindako okerrren bat estali nahiko balu bezala.

Emakume baten gonbito gorriak garbitzen ari ziren beste laguntzaile batzuk. Haiak joan orduko, Jonen bekoz beko geratu zen emakumea. Jonek baino hamar urte gehiago eduki zitzakeen emakumezkoak. Aurpegia urdin-berdea, ur hotz sakonek duten kolorekoa. Begi-zuloek ikatzez beteriko zakuak ziriduten. Jonek pentsatu zuen aurpegi hori bere aurpegiaren

irudia izan zitekeela, gaitzak pertsona guztiak berdindu baitzitu, eta ez bakarrik itxuraz. Emakumeak irribarre egin zion Joni, ustekabeko irribarra, ia-ia zentzurik gabekoa, eta Jonengan hauspotu ziren bare ziren sentimenduak eta grinak. Gogora etorri zitzaion arrebaren urtebetetzea. Egun horretarako jada zabaldua zegoen gaitzaren mehatxua, baina mehatxu bat zen, gonbito gorriak oraindik ikusi gabeak ziren. Aita eta ama han ziren. Inongo loturarik izan gabe, lagunekin egindako bidaia xebreak ere jo zuen bere buruan. Autoz abiatu ziren helmuga jakinik gabe, baina autoa izorratu zitzaizen bigarren egunean. Auto-stopez jarraitzea erabaki zuten. Zozketa egin zuten, eta Joni nahi ez zuen hura suertatu zitzaion. Egia esate aldera, ez zeukan ezer zehatzik haren aurka. Jonek onartuta zeukan jendea oso bestelakoa izan zitekeela, eta hura, Mo ezizenekoa, horietako bat zen, berarengandik oso desberdina. Mo eta Jon, lehenengo bikotea. Ka eta So, bigarrena. Mapan, zoriz, toki bat markatu zuten. Zortziehun kilometro egin behar ziren hara iristeko. Bikoteak martxan jarri ziren. Bikote bat errepidearen eskuin aldean; bestea, berriez, ezker aldean. Sekula ez ziren helmugan elkartu, nahiz eta bi bikoteak bertara iritsi ziren. Oporrak amaitutakoan, Jonen etxean elkartu ziren bidaide guztiak. Gogoratu zuten eta egiaztatu zuten zenbait aldiz topo egitekotan ibili zirela. Denbora eta espazio tarte txikiek baino ez zuten topaketa saihestu. Garagardo garagardo ondorio gogoetatsu eta serio batzuk ere atera zituzten esperientzia hartatik, hala nola metro batzuek edo minutu batzuek nola eragin dezaketen bizitza norabide batetik edo bestetik joatea.

Itsasontziaren bizkarrean eserita zegoen emakumearen ustekabeko irribarreak piztu zituen oroipen horiek, oroipen

baikorrek antza. *Nora*. Bata bestearantzat eginak zeudela pentsatu zuen une batez, Nora ezin gertuagoko pertsona iruditu zitzaion Joni, betidanik ezaguna, baina, halaber, Jon jabetzen zen gaitza zela sentimendu horien iturria. Gaitzak biluzten zituen pertsona guztiak, dena zen sentimendu eta mina, naziek juduak biluzten zituzten eran, eta une horretantxe denak berdinagoak, gertuagokoak izaten ziren, bereizketak ekoizten dituen iragana desagertu eta gero. Geratzen ziren bakarrak oraina eta geroa ziren, eta horiek antzekoak, oso antzekoak, ziren denentzat.

Jon beste zonalde baterantz abiatu zen, poz-ukitua bide-lagun zuela aspaldiko partez.

3

Irlan utzi zituzten. Denetik zegoen tropelean, zahar, heldu eta gazteagoak, ar eta emeak. Eguraldia zoragarria zen, Jonek beste garai batean zalantzarik gabe aukeratuko zukeenena. Zeru urdin iluna, urdin sendoa, pisua, hodei zuri lodi bakan batzuek zipriztindurik. *Urdin kalifornianoa*, esaten zuen Jonek. Goizeko tenperatura fresko antzera, eta geroago, eguzkitan, gorputzak eskertzen zuen giroa nagusi. Harelere, aspaldi zen Jon jabetu zela eguraldiaz ez zela jabetzen, eta are urrutiago geratzen ziren gurasoekin batera arrasti aldera ikusten eta entzuten zituen eguraldi iragarpenak, telebistako kate batetik bestera jauzika. Egia esateko, Jonen aita eguraldiaren iragarpen saioen zale amorratu bihurtu zen, eta hori, gainerako senideei, kutsatu zitzaian, kutsakorra baitzen, antza denez.

Zaindariek janari kutxa guztiak irlako kai txikiaren ondoan utzi zituzten, pipiak jandako eta kresalaz koipeztatutako zurezko mahaietatik gertu. Zaindariak hiru meta osatu zituzten sua egiteko egurrez, hurrenez hurren, ezpal fin txikiak, arbaztak eta enbor puska sendoak. Gaixoek askatasun osoa zuten nahi zuten lekua aukeratzeko, heriotzaren edo etorkizunaren zain egoteko. Uralitazko estalki batzuk ere ba zeuden han eta hemen, eta haien babesean jartzen ziren gaixoa euria egiten zuenean.

Gaixo bakoitza bere tokiaren bila abiatzen zen, eta, oro har, ez ziren urrutira joaten. Gehienak kaitik oso gertu gertzen ziren etzanda, hartu behar zituzten pilulak soinean, mirariaren aiduru, gutxitan, baina tarteka gertatzen zen sendaketaren zain.

Aurreko bidaian bertaratuetaoetatik gutxi batzuek irauten zuten bizirik, beste batzuk jada poltsa beltzetan zeuden. Halere, zaindariak beti aurkitzen zuten gorpuren bat irlako txokoren batean.

Jon ere kaitik gertu geratu zen, zortzigarren mahaiaren parean. Alboan mutil gazte bat zeukan, hogeitaz ez zituena, eta oraindik ere begiak harriduraz mugitzen zituena. Jonek hasiera-hasieratik pentsatu zuen mutil hura bizirik aterako zela. Mutikoak ez zuen hitz egiten, eta bien arteko harremanak ez zuen bide errazik izan. Gauean, euririk egiten ez bazuen, mahai azpiko txokoan egingo zuten lo biok. Toki hartatik aurrerantz begiratu, hiri ageri zen, hiri gainbeheratua. Hiria bizkarrean, mendiak, betiko gisan.

Jonenetik hiru mahai ezker alderago zegoen Nora, atso baten ondoan. Atsoak altxatzeko gaitasun urria zeukan, eta, iritsi ahala, gonbito gorriek putzu bat osatu zuten haren

inguruan. Nora putzu hartatik bere burua baztertzen saiatzen zen, nazka sumatzen baitzuen. Baina, berandu gabe, bere buruarenganako lotsa sentitu zuen. Arbuiagarria iruditu zitzaion horrelako nazka sumatzea. Atsoaren gaitza oso aurreratuta zegoen, eta azkena ez zuen oso urruti izango. Lehenengo gauean zehar, mahai azpian, Noraren jokabidea aldatu zen, eta bere burua putzu gorritik urruntzetik amonaren burua bertatik urrunaraztera igaro zen. Norak amultsuki pasatzen zuen bere eskua amonaren buru azpitik, eta mugimendu ia hautemanezin batez baztertzen zuen haren burua. Gero, zapi heze batez lurreko gorritasuna xurgatzen zuen ahal zen neurrian, guztiz kentzea ezinezkoa baitzen. Amonak begiratu zion, eta lehenengo irri bustia eskaini zion Norari. Une hartantxe Noraren bihotzaren jabe egin zen atsoa. Loak hartu zituen.

Jon esna-esna egon zen ia gau osoa, aldameneko gazte-ari begira. Ez zen normala hain mutiko gaztea izanda hain isilik egotea, hain goibel. Azken aldiko bizipenak poz guztia, mozorro baten gisan, erauzi behar izan zion. Tarteka mahai azpitik ateratzen zen Jon, eta hirirantz begiratzen zuen beste altuera batetik. Argi gutxi batzuk geratzen ziren, eta argi horiek, indar elektrikoa baino, indar sinbolikoa zutela iruditu zitzaion Joni. Zeru garbi eta ilunean, izarrek sekula baino indar handiagoa agertzen zuten, anai-arreba lurtar artifizialen aurrean harro. Ikusezinak ziren bizidunek sortutako hotsei antzeman zien. Tarte batez ederra iruditu zitzaion gaua, eta mundua ederra zela edo izan zitekeela pentsatu zuen. Ez zuen oso ondo ulertzen nondik zetozkion horrelako pentsamenduak, baina hobea izateko grina iltzatu zitzaion, munduak konponbidea bazuela otu zitzaion. Mahai azpira itzuli, eta mahai-kide kolorgeari besarkadatxo bat eman zion.

Egun batzuk pasatu ziren irla nagusira iritsi zirenetik. Nora eta atsoa elkarrekin eman zituzten egun horiek. Atsoak apenas zuen indarririk, ez ahalegin fisikorik egiteko ez paseotxoia emateko, ezta bere burua garbitzeko ere. Haren inguruan gero eta maizago agertzen ziren orban eta putzu gorriak. Harelere, Noraren alboan, mintzatzeko grina ez ezik, gogoratzeko gogoia ere eskuratu zuen. Solasaldietan ihes egiten zioten bere baitako garrek. Nora konturatu zen soineko zulatu eta zikin horren barruan zihoan atsoa hitzun trebea zela. Haren mintzotik haren iragana sortzen zen, eta haren itxura zarpaila bigarren mailara igarotzen zen. Izaera irmoko emakumezkoa agertu zitzaion Norari, borroka askotan aritutakoa, maila eta esparru desberdinetako borroketan, eta bazuen beste ezaugarri aipagarri bat ere, atsoa emakumezko garailea baitzen, borroketan irabazlea. Alaba bakarra zeukan, atzerrira joandakoa, eta, jakina, haren berririk ez zeukan aspaldidanik. Atsoak zioenez, mundua garai batean ikaragarri handia zen, eta mende asko pasatu behar izan zen mundua txiki eta estu bihurtzeko. Gero, atzera, urte gutxiren buruan, txikia zena handi, ikaragarri handi bihurtuko zen, eta prozesu horretan alaba galdu edo urrundu zitzaion. Norak gustura jarraitzen zituen atsoaren gorabeherak, miresmenez. Hitzaren bitartez, atsoak egoera irauli zuela iduri zuen. Nora ere askatu zen. Eta bien arteko tratu sakona sortu zen. Denbora zuten, eguneko segundo guztiak zituzten beren esku. Nora jabetu zen ordura arte bizitza azkar pasatu zitzaioela, oso azkar, batez ere bulegoan lanean hasi zenetik. Jabetu zen sekula ez zituela inorekin izan atsoarekin izandako elkarrizketa luzeak. Atsoa garaile bihurtu zen irlan. Nora hark piztu zuen.

Atsoa apenas mugitzen zen suertatu zitzaizen mahai hartatik. Nora tarteka, indarrek eta gaitzaren garapenak baimentzen ziotenean, bazter-miran abiatzen zen, urrutira joan gabe, eta beste gaixoei laguntzen saiatzen zen, ahal zuen neurrian. Jon ere antzera ibiltzen zen. Gorpuren bat ere aurkitu zuten, bere gonbito gorrian itoa. Jonek eta Norak gorpua poltsa beltzean sartu zuten. Ahaleginak neka-neka eginda utzi zituen, baina horrela kanpalekua txukunago geratzen zela uste zuten, etorkizuna hain agerian ez baitzen geratzen, hobe etorkizuna poltsa beltzean ezkutatzea haren aurpegi zurbil hitsa erakustea baino.

Itsas ertzean eseri ziren. Nork bere kabuz, biek ere antzekoa pentsatu zuten. Beste garai batean eguraldi eta giro hau zinez zoragarria zatekeen. Zeru urdinean lasai-lasai zebiltzan hodei zuri txiki sendoak, erasorako inongo grinarik azaltzen ez zutenak. Pasarelako modeloak ziruditen. Itsasoa bera ere gozo mugitzen zen, kulunkan bezala. Ondorioz, hondoko itsas izarrak mugitzen ari zirela ematen zuen. Olagarren bat igarotzen zen tarteka, izarren itxurako mugimendua agerian jarritz.

Baina bazegoen xehetasun bat mezu zitala bidaltzen zuena: eulien kopurua, hain zuzen ere. Burrunba beltz hark ez zuen bat egiten zeru-itsaso urdinekin. Zalantzarik gabe, errealitatearen mezua zekarren zuzen-zuzenean. Kaio saldoa karranka bizian igaro zen, eta hiri parera iritsi ahala, lurra hartzeko maniobrak egiten hasi ziren.

Hiria, hiri osoa zabortegei bihurtua zen.

Egun batzuk pasatu ziren, eta Noraren bizilagunak okerrera egin zuen nabarmen. Gonbitoak gero eta maizago gertatzen ziren. Bitartean, Noraren eta Jonen egoerek ere antzeko bidea jarraitu zuen. Gaitzak motel-motel egiten zuen aurrerantz gaiztotzeko bidean.

Atsoa lurrean eseri zen, bizkarra mahai ondoko aulkian bermatuz. Aulkian Nora eseri zen, hankak zabal-zabalik amonaren bizkarrari leku eginez. Orrazten ari zitzaion alanbre itxurako ile urdindua. Atsoa bere azkeneko garaipentxoetako bat kontatzen ari zitzaion. Nola lortu zuen lantokiko ardura-dun nagusi izatea. Xehe-xehe azaldu zion nola eskuratu zuen postu hori, kostata, oztopo lasterketa batean bezala. Kontakizuna amaitutakoan, itsasoaren burrunbatxoa besterik ez zen airean geratu, eta biek so egin zioten hiriari, nork bere begiz, baina pentsamendu berdinak gogoan. Norak gomatxo bat erabili zuen amonaren ile sendoa biltzeko, eta pentsatu zuen emakume hark berak baino ile sendoagoa zeukala, eta ugaragoa. Gero, eskuekin fereka egin zion lokietan, kopetan, masailtan. Atsoa, oka egin ondoren, lozorroan geratu zen, burua zertxobait okertuta Noraren izterrean bermaturik. Atsedena, hiriari begira. Ikusiaren ikusiz, hiria tinkotu edo iltzatu zela iruditu zitzaion Norari. Jada ez zuen ematen mugimendu zoroaren gunea, haize, euri eta eguzkiaren erasoen mende porlan puska erraldoia baizik. Leloturik geratu zen Nora, bere eskuek atsoaren buruan barrena beren ibilbidea egiten zutela.

Itsasontzia irlara itzuli zen, eta gaixo gehiago bertaratu zituen. Trukean, poltsa beltz beteak eraman zituen hirira.

Jon eta Norarekin batera irlara iritsi zirenen artean, gutxi batzuk baino ez ziren bizirik geratzen. Miraririk ezean, bai Jonek bai Norak jakin bazekiten hilabete baino gutxiago geratzen zitzaiela leka-zorro beltzean sartzeko. Zeukaten indarra elkarrizketa amaiezinetan xahutzen zuten. Zorionez, gaitza ez zen mingarriegia. Gonbito egiteko unea gogor samarra izaten zen. Gainerakoan, nahiko ondo eramaten zen. Ahulezia areagotzen zen egun batetik bestera, eta jateko ere ahalegin handiak egin behar ziren. Atsoa amore emanda zegoen, eta Norari esker baino ez zen gauza zer edo zer ahartzeko. Nora kutxa handietara joaten zen, eta bertatik ura eta lata batzuk eskuratzen zituen, normalean egun pare bat igerotzeko. Jonen mutilak hobera egin zuen, eta Jon eta Nora pentsatzen hasiak ziren sendatuko zela.

Norak eta Jonek *Jainkoaren begiraino* joatea erabaki zuten. Mutilari eskatu zioten atsoarekin gera zedila, eta azalpenak eman zizkioten. Amonari hirira begira lotan geratzea gustatzen zitzaion, eta, aukeran, esku bat bere alanbrezko ileetan barne zebilela. Eta mutilak hori gustura egingo zuela erantzun zien, eta han utzi zituzten biak, amona zurbila eserita, eta etorkizunean amesten hasia zen mutila haren bizkar aldean, fereka ezin gozoagoak eginez, ilean, masailetan.

Tarteka amonak bere esku hotzen artean heltzen zion eskua mutilari, berotasun apur bat xurgatu nahian edo.

Dozena bat urrats egindakoa gelditu ziren, eseri, eta atsedena hartu zuten tarte batez. Jonek pentsatu zuen aitonduta zegoela, nola zen posible paseo labur hura gurutzebide bihurtzea! Halere, Jonek behin eta berriro esaten zion Norari, iritsi behar dugu, iritsi behar dugu, hil edo biziko erronka izugarri baten aurrean baleude bezala, eta Norak begiradarekin garbi uzten zion ez zegoela ziur balentria hartaz. Ez zuen ulertzen Jon hain temoso jartzea. Une batean zera esan zion: gizonetzkoa gizonetzko hil arte.

Iritsi ziren. Norak ez zion kasu handirik eman *Jainkoaren begiari*. Iritsi bezain laster, etzanda jarri zen zeru urdinari begira. Jonek galdetu zion ea zergatik esaten zion gizonetzkoen kontu hura. Norak erantzun ez zuenez, Jonek azaldu nahi izan zion zergatik zen garrantzitsua *Jainkoaren begia*. Deskribatu zion ikusten zena, ikusten zenaren edertasuna. Hiria oso ongi ikusten zen, egun hartan itsasoa maindire urdina baitzen. Azaldu zion nola ibili zen azken aldiz hondartzan barrena, itsasontzian sarrarazi baino egun pare bat lehenago. Itsasoa ez zegoen bare egun hartan, itsasoa amorrurak jota zegoen hiria irentsi nahiko balu bezala. Kontatu zion egun hartan itsasoa bizidun iruditu zitzaioela, sentimenduak zituen izaki bat; zehatzago, asmoak eta intentzioak, ez oso onak, zituen bizidun bat. Otso talde bat zirudien, ardi beltz otzanari erasoka. Harro sentitu zen Jon bere gogoetaz, eta Noraren baieztapena behar zuen. Hiria utzi, eta Norari begiratu zion. Norak begiak itxita zeuzkan, eta Eguzkiak bete-betean ematen zion aurpegi zurbilean. Musu bat emateko gogoia izan zuen Jonek, baina uste zuen Nora haserretu

egingo zela. Nora!, esan zion, Nora! Eta bere ezpainak Noraren ezpainetara hurbildu ziren. Norak ez zion ezer esaten.

Nora! Nora!

Jon etzanda jarri zen. Nora joan zitzaiola pentsatu zuen, eta ez diot behar bezalako musurik eman. Eta ez diot...

8

Jonen gaztea itsasontzian itzuli zen, sendaturik. Amonarekin eta Jonekin pasatu zituen azkeneko egunak irlan. Noraren heriotzaren ondoren, Jon amonaren mahaira pasatu zen, eta egunero orrazten zion ilea. Egun batean hirurek ikusi zuten nola eramaten zituzten poltsa beltzak itsasontzian, eta bazekiten haietako batean zihoala Noraren gorpua. Amonak eta Jonek negar egin zuten, nork bere erara, nork bere arrazoiengatik. Egun batzuk geroago, amona hil zen, eta bi egun geroago Jonen txanda izan zen. Bien gorpuak mahai inguruan geratu ziren.

Gaztea karelean zihoan, eta irlarantz zeukan zuzendurik begirada. Irla urruntzen ari zitzaion, txikitzen. Olatuen eraginez tarteka desagertzen zen, baina *Jainkoaren begiak* hor jarraitzen zuen ikusgai. Gazteak pentsatu zuen noiz piztuko ote zen berriro *Jainkoaren begia*, noiz zuzenduko ote zuen berriro itsasontzien bidea.